

Unión pour la Défense de la République

dira *frankismoaren pean jaio eta hazi diren *sindikatu-mugimenduak. 1977.ean parte bat *UGTra pasa zitzaionean une larriak iragan zituen, baina badirudi USOk proposatzen duen «Sindikalismo autonomoak» irauteko asmorik baduela.

Euskadiko Lehen Kongresua 1976.ean ospatu zen, LSB/USO izena onartuz. Lau *probintzietako *erakundea da eta autonomia zabala du Estatu.*konfederakuntzari buruz.

*Ideologia: *klasearteko burruka sindikatu, *gizarte sozialista (ik. SOZIALISMOA) autogestionatua (ik. AUTOGESTIOA) du helburutzat. Autonomia sindikala eta alderdi politikoez independentziaren defendatzaile suharra. Alderdigabeko langileak biltzen ditu, nahiz eta alderdidunei ere irekia izan.

Bizkaian eta Nafarroan aurkitzen dira LSB/USOren punturik sendoenak. 1978.eko *hauteskundeetan honako portzentaiak lortu zituen (datu ofizialak): %5,55 Bizkaian; %3,6 Nafarroan; %1,21 Araban eta %0,25 Gipuzkoan.

Txema Amigot, Endika Amilibia eta Jose Luis Longarte dira zuzendari ezagunenak.

ERAKUNDE ESTATALAK EUSKAL HERRIAN.

Union pour la Défense de la République (UDR)

RASSEMBLEMENT POUR LA REPUBLIQUE (RPR).

Union pour la Nouvelle République (UNR)

RASSEMBLEMENT POUR LA REPUBLIQUE (RPR).

URSS/SESB

SOVIETAR ERREPUBLIKA SOZIALISTEN BATASUNA.

USA

AMERIKAKO ESTATU BATUAK.

Uso

FORU-BAIMERA.

USO/LSB

UNION SINDICAL OBRERA/LANGILEEN SINDIKAL BATASUNA.

Usurpazioa.

usurpación/usurpation

Norbaitek, beste hati kendurik, bereak ez dituen ondasunak edo *eskubideak bereganatzea edo eta zuzenkontra erabiltzea.

ANEXIOA; INBASIOA; JABETZA.

Utopía

1.- Zentzu arruntean, ameskeriazko asmoei, 2.- hiztegi politikoan, bizitza sozial idealaren irudipenezko ereduai, 3.- mugatukiago, *sozialismoaren historian, premarxista edo hasierako sozialisten asmo sozialei, ohi deritze utopia. Izena, Th. Morus Gantzelere ingelesak bere Utopia (1515) Estatu-elaberrian asmatua da, **topos** = leku eta **ou** = ez, osagarri grekoetatik (inon ez).

Utopia, hastapen-*mitoetatik eta eskatologiatik bereizten da, haiekin tradizio berbatetan egon arren. Utopiaren ezaugarria hain zuzen, gizarte-bizitzako perfektioa harmonia osoan ikustea da, giza harremanak, *berdintasun guztizko *ordenu sozial atseginez, betirako bakez, gurari guztien asebetetasunez, *lanaren pozez, birtutea praktikatzeko gustuz, etab., bururatzen direlarik. Utopia klasikoak, anti-goailekoak (Platon, **Politeia**) nahiz *Ilustrazio-garaikoak (Morus, Campanella...), ez zion begiratzen egingarritasunari; modernoak, aldiz, proiektu bat izan nahi du eta gizarte-ordenamendu zuzen berri batetarako arau egingarriak bilatzen ditu (Saint-Simon, Fourier, Cabet, Owen...), hein honetan, zientziarekin nahastuz, haren oinarri, edo xede, edo egitamu gisa (Marx, Kropotkin): Comteren irakasle Saint-Simon «sozialista utopikoa» dateke; bera litzateke gizarte modernoaren azterketa kritikoa, (zientifikoa eta enpirikopositibista), abiatu eta oinarritu duena (Durkheim). Utopiak baditu alderdi onak: kontzientzia soziala biztea, gizarte-molde ororen mugak eta posibilitate berriak erakustea... Gaur egun, kutsu negatibo bat datzekio utopia kontzeptuari. Zentzu honetan, antiutopia edo utopia negatiboak sortu dira literaturan (Nietzsche, Huxley, Orwells), utopietako harmonia, bakea, birtutea, ordenua, etab., extremu absurduetara eramanez eta perbertsio gisa agerteraziz, edo eta harmonia idealari ideal dinamikoak, burrukazkoak, kontrastatuz eta ordenu eta harmonia perfektuen utopia bera *totalitarismo eta *tiraneria modernoan sorburutzat salatuz.

Joxe Azurmendi

IDEOLOGIA.